 <p>UKT UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.</p>	<p>Urolako Komunikazio Taldea, Koop. E. Datu Pertsonalen Babesa</p> <p>Aplikaziorako Lege Oharra</p>	<p>Edizioa: 2021/07/19 Berrikus.: 2021/07/19 Bertsioa: 1.0 Erref.: WEB-001 Orrialdea: 1 / 3</p>
--	--	---

Lege Informazioa

Informazio Gizartearen Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoen 2002ko uztailaren 11ko 34/2002 Legea betez, jakinarazi nahi dizugu "Ku-Ku Hurrekin Hitz Egiten Hasteko APP-a" mugikorren aplikazioaren titularrak honako hau dela:

- Izen soziala: Urolako Komunikazio Taldea, Koop. E.
- I.F.Z.: F75221226
- Helbidea: Soreasu, 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
- Telefono zenbakia: 943 81 38 41
- Helbide elektronikoa: administrazioa@ukt.eus
- Erregistro-Datuak: Euskal Herriko Kooperatiben Erregistroan 2795 orrialdean inskribatuta 20190025 zenbakiarekin.

Urolako Komunikazio Taldea, Koop. E. enpresaren (aurrerantzean "**Urolako Komunikazio Taldea**" edo "**Tratamenduaren Erantzulea**") helburua tokiko hedabide bati dagozkion zerbitzuak ematea da.

1. Baldintza Orokorrak

Ku-Ku Hurrekin Hitz Egiten Hasteko APP-a Urolako Komunikazio Taldearen jabetzako aplikazioa da. Erabiltzailea borondatez sartu ahal izango da bertan, eta gainera, sartzeari doako da. Aplikazio honetan nabigatzeak esan nahi du erabiltzaileak ezagutzen eta onartzen dituela bertako lege oharrak, erabilera baldintzak eta bertako pribatutasun politika. Erabiltzaileak ez baditu onartzen pribatutasun politika eta erabilera baldintzak hauek, eta beraz, ez badie onespena ematen, ezingo du aplikazio hau erabili.


Aplikazio honetan sartzeari eta bertako informazioari zeinahi erabilera ematea erabiltzailearen eta soilik erabiltzailearen erantzukizunpekoak izango dira. Hala, informazioa aplikazioaren helburuarekin bat eginda erabiltzeko konpromisoa hartu beharko du erabiltzaileak. Erabiltzaileak ezingo dio eman, beraz, legez kontrako erabilerarik aplikazioko informazioari. Bide beretik, ezingo du aplikazioko informatika-sistemei kaltea eragin diezaikeen ekintzarik egin.

Erabiltzaileek galarazita izango dute eduki faltsuak edo okerrak txertatzea edo jakinaraztea, ezingo diote eman Tratamenduaren Erantzuleari, beste erabiltzaile batzuk edo hirugarrenak nahasteko moduko edukirik. Erabiltzailea bera izango da, horrenbestez, ematen dituen datuekin eragindako kalteen erantzule bakarra. Ezin da erabili hirugarrenen datu pertsonalik, euren baimenik gabe. Era berean, debekatuta dago hirugarrenen identifikazio-datuak erabiltzea, beste pertsona edo entitate baten tokian jartzeko asmoz.

Tratamenduaren Erantzuleak ahalegin handia egiten du aplikazioan argitaratzen diren edukietan akatsik egon ez dadin. Beraz, beretzat gordetzen du edonoz horiek aldatzeko eskubidea. Urolako Komunikazio Taldeak espresuki uko egiten dio aplikazio honetako edukietako akats edo hutsegiteengatik erantzukizunari eta baita horien egiazkotasun-, zehaztasun- eta gaurkotasun-faltaren ondoriozko kalteengatik erantzukizunari ere.

Aplikazio honek beste aplikazio edo wegbune batzuetarako estekak jar ditzake. Tratamenduaren Erantzuleak ez du bere gain hartzen estekatutako gune horietako ezein edukiren erantzukizunik; izan ere, ez du horien gaineko eta horietan eskainitako eduki, produktu eta zerbitzuen gaineko erantzukizunik. Zerbitzu horien helburua, hain zuzen, erabiltzaileei beste informazio-iturri batzuen berri ematea da; horregatik, erabiltzailea soil-soilik bere erantzukizunpean sartuko da eduki horietara, bertan araututako baldintzen arabera.

Tratamenduaren Erantzulea ez da aplikazio honen edo bertako edukien erabileratik eratorritako edozein ondorio edo kalteren erantzulea izango, informatika-kalteak eta birusak txertatzea kontuan hartuta. Urolako Komunikazio Taldeak ez du bermatzen aplikazioan ez dela inolako birusik edo bestelako

	<p align="center">Urolako Komunikazio Taldea, Koop. E. Datu Pertsonalen Babesa</p> <p align="center">Aplikaziorako Lege Oharra</p>	<p>Edizioa: 2021/07/19 Berrikus.: 2021/07/19 Bertsioa: 1.0 Erref.: WEB-001 Orrialdea: 2 / 3</p>
---	---	---

elementurik izango, kanpoko hirugarrenek txertatutakoak, eta erabiltzaileen sistema fisiko zein logikoei kalteak ekar diezazkieketenak; nolana ere, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, horrelakorik gerta ez dadin.

Urolako Komunikazio Taldeak beretzat gordetzen du noiznahi, alde zuzenetik oharrik edo azalpenik eman gabe, aplikazio honetako diseinua, konfigurazioa eta informazioa aldatzeko edo ezabatze eskubidea, baldin eta beharrezkoa dela iruditzen bazaio. Tratamenduaren Erantzuleak ez du bere bizkar hartuko aldaketa horiek ekar ditzaketen kalteen erantzukizuna. Dena den, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa horien berri emateko.

2. Datuen Tratamendua

Aplikazio honetan sartzeak ez dakar, halaber, datu pertsonalak eman behar izatea. Nolanahi ere, eskaintako zerbitzu batzuk erabiltzeko beharrezkoa izan daiteke datuak ematea.

Erabiltzaileak egiazko datuak, zehatzak eta osotak emateko konpromisoa dauka, bai erregistroa egitean (beharrezkoa izanez gero), eta baita geroko jakinarazpenak gauzatzean ere. Hala, horien edozein aldaketaren berri emateko erantzukizuna ere izango du.

Galdetegietan derrigorrezkotzat jotako eremuak hutsik utziz gero, Urolako Komunikazio Taldeak, behar bada, ez dio erabiltzailearen eskaerari erantzungo.

Erabiltzaileek borondatez eskatu ahal izango dute buletin-taldekako harpidetza egitea. Nolanahi ere, erabiltzaileek noiznahi eskatu ahal izango dute zerbitzu horretan baja emateko. Horretarako, idazki bat bidali beharko dute Urolako Komunikazio Taldeari, edo bestela, enpresak horretarako jarritako beste edozein bitarteko erabili ahal izango dituzte.

3. Jabetza intelektual eta industrial

Aplikazio honen jabetza-eskubideak, eta baita bertako orrialde, pantaila, informazio, itxura zein diseinu, produktu eta zerbitzu, marka, logo, lelo eta gainerakoen jabetza-eskubideak ere, Urolako Komunikazio Taldearenak dira, non eta ez den bestelakorik adierazten.


Aplikazio honetan sartzeak edo bertan nabigatzeak ez du esan nahi, inola ere, Tratamenduaren Erantzuleak bere jabetza intelektual edo industrialaren eskubideei uko egiten dienik, edo erabiltzaileari bere erabilera pertsonalerako utzi edo baimena (erabatekoa edo hein batekoa) ematen dionik. Norbaitek lan horiek baimenik gabe erreproduzitu, banatu, merkaturatu eta eraldatzen baditu, Tratamenduaren Erantzulearen jabetza intelektualaren eskubideak urratuko ditu.

Erabiltzaileak aplikazio honen titulartasunari kalteak eragingo lizkiokeen zeinahi ekintza ez egiteko konpromisoa hartuko du. Aplikazioko informazioa baimenik gabe erabiliz gero, edo titularren jabetza intelektual eta industrialaren eskubideei kalteak eraginez gero, dagokien lege-ekintzak egikaritu ahal izango dira, eta hala badagokio, hori egikaritzetik eratorritako erantzukizunak bete beharko dira.

4. Aldaketak

Baldintza hauek guztiak aldatu ahal izango dira, baldin eta Tratamenduaren Erantzuleak noizbait egokitzen badu; bai lege-aldaketei egokitzeko, bai bestelako hobekuntza batzuk egiteko. Aldaketa horiek indarrean egongo dira aplikazio honetan argitaratzen diren unetik aurrera. Tratamenduaren Erantzuleak eskura dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, erabiltzaileei aldaketa guztien berri emateko.

5. Jurisdikzioa

	<p>Urolako Komunikazio Taldea, Koop. E. Datu Pertsonalen Babesa</p> <p>Aplikaziorako Lege Oharra</p>	<p>Edizioa: 2021/07/19 Berrikus.: 2021/07/19 Bertsioa: 1.0 Erref.: WEB-001 Orrialdea: 3 / 3</p>
---	--	---

Urolako Komunikazio Taldearen eta erabiltzailearen artean sortutako harremana, hain zuzen, aplikatzeko modukoa den legediari eta eskumena daukan jurisdikzioari buruz indarrean den araudian xedatutakoak arautuko du. Nolanahi ere, araudiak aurreikusten badu aldeek eskumen baten mende jarri behar dutela, Urolako Komunikazio Taldea eta erabiltzailea, dagokien beste zeinahi eskumeni espresuki uko eginda, Azpeitiko Epaitegi eta Auzitegien menpe jarriko dira.

Erabiltzaileak ez baditu baldintza hauek betetzen edo aplikazioan azaltzen diren edukien okerreko erabilera egiten badu, Tratamenduaren Erantzuleak Zuzenbideak ematen dizkion neurri zibilak eta penalak (ekonomikoak barne) hartuko ditu ez-betetze hauek zigortzeko.